

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Lehenbizikoa

JAIO ETA BIZI NAIZEN HERRIAN historia polita izan duen zeta harrari buruz jarraitzeko asmotan utzi nuen aurreko batean berari buruzko aipamena. Urrutikoen berotan hozten utzi gabe helduko diot gaurkoan. Serikultura da zeta harraren hazkunderari emandako langintza. XIX. mendearen bukaeran, etekin onak emateko moduko langintza zela zabaltzeko ikaragarriko ahalegina egin zuten Espainiako jauntxo batzuk.

Erregeen gonapezaletik beti izan da Gipuzkoan, eta babes hartatik sustatuta zetaren harra bertan hazteko ikerketak egin ziren, Bartzelonako katedradun bat tarteko. Bestetik, Gregorio Lopetedi Lekunberrik sekulako ahalegina egin zuen langintza hori gorpuzteko. Txinatik ekarritako zeta harraren hazkuntza hemen egin nahi izan zuen Usurbilgo Urdaigako Iri-sasi mendian, garai hartarako sekulako ola eraikiz. Han haritz hostoz elikatuz hazten zuten zetaren harra. Agidanean, jatorrizko *Morus* generoko marugatzarbolaren hostoz hazitakoarekin adinako emaitzak lortzen zituen. Frantzian barrena ibili ondoren frogatu zuen, nonbait bere zeta haria egiteko egokia zela eta Donostiako Gros auzoan zeta hura hari bihurtzeko lehen ola antolatu zuen; izena ere halakoxea jarri zion: "Lenbizicoa". 1880an *Tratado práctico de la cría del gusano de seda del roble* izeneko liburuxka idatzi zuen. Bere lanaren sona ez zen txantxetakoia izango,

izan ere 1882an Burdeoseko azoka ezagunean urrezko domina eman baitzioten.

Haritzetan hazten zituzten zeta har haiek, ordea, arierioa besterik ez zuten. Armiarmak zirela, saguak zirela, txindurriak zirela, liztorrak zirela eta batik bat txoriak zirela... ezin atarramentu onik sortu.

Ekin nahi dionarentzat, ordea, hor dira argitaratutakoak eta egun ondare maila duten arrastoak. Baita haritzarekin batera probatzeko ekarri eta landatu eta oraindik bizi diren marugatzar aleak ere.

ANTONIOXALONSO-CC BY SA



## 2,4

Esne kilo bat ekoizteak 2,4 kg CO<sub>2</sub> sortzen du. Jakiak ekoiztea, ongarrriak, garrarioa... esne-behia elikatu eta ekoizpena osatzeko beharrezko diren ekintza guztiak kontuan hartutako emaitza da. Berotegi-efektuaren erantzule nagusi diren gasen %4 esnea sortzeari dagozkio. Ikaragarria dirudi. Horrek esnezaleak ernatu eta gas horiek gutxitzeko zer edo zer asmatzera jarri ditu. Proposamen anabasan bat nabarmentzen ari da: behien jatenetan ezker-aihera ("houblon", "lupulo", *Humulus lupulus*) eranstea. Hausnarketan sortzen den metako kopurua nabarmen murrizten omen du. Hirusta gorriarekin (*Trifolium pratense*) antzeko ikerbide bat jorratzen ari dira.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

VIVEROS

# Fadura

Konifera eta zuhaixken  
produkzioa eta lorezaintza

Mota guztietako  
zuhaitzen salmenta

Larrañazubi bidea, 15 · 48640 **BERANGO** (Bizkaia)  
Tel. 618 86 63 41 - 657 79 08 11